

## Pepa zato ohera

- 1 Gizona zoin triste den ezkontza gabetan Lorikan ezin egin beti pentsaketan Ohetik neskatoari zato huna Pepa Hemen egonen gira biak eleketan.
- 2 Pepak ere eman dio bere errpostua Ez ahal dituzu bada zangoak hoztuak Heldu naiz berehala itzaltzen dut sua Ez dut galtzera utzi nahi holako kausua
- 3 Pepa zure berriak jakin ditu atzo Nola egona zinen ogei egun preso Bero denean itzala batere ez da gaisto Handik atera zera aza bezain fresko.
- 4 Hola preso egoteko zer zinuen sujeta Establiatik hartu besteren paketa Paketa horren hartzeko bazinuen kopeta Hori deitzen baitugu ohoinen buketa.
- 5 Behin egin duena eginen dio berriz Etsaia ari zaio bazterretik irriz Hura beti kontentu zarkeria nahiz Irin onaren plazan ordaintzen du zahiz.

Airea: Eperrak badituzu  
**FAGOAGA, Frantxoa «Apeztei»**

## San Estebe egunean

- 1 San Estebe egunean lehenbiziko buelta Aire puskatu dira Bera-ra joanta Bati gusta izan zaio hitz horiek erranta Ikustekoak zirela neskatz hoiien planta Ez zirela mozkortu hutsa edanta.
- 2 Erran bazuen erran ondoko egunetan Hor ibilia zira bakezko jujetan Antolamendua egin ogei pezetetan Neska horiek gero kontent lorietan Besta egin behar dinau horien ohoretan.
- 3 Gauden urte berriko lehen igandean Hor ibilia dira Irungo partean Handik partitu dira ilunabarrean Aire puska ederra lagun bizkarrean Gaua pasatu dute nonbait iratzean.



Airea: Etxahun ta Etxaide.  
Agur adixkidea Jainkoak egun on  
**Austeiko Gabi FAGOAGAren ahotik.**

## Agorrilaren hasieran (14eko Gerla)


- 1 Agorrila hasieran hasten naiz kantatzen Egun urte beteko egunaz oroitzen Mila bederatzia ehun ta hamalaua baitzen Gerla izigarri bat European hasi zen Orduan piztu sua oraino ez da hiltzen.
- 2 Laster jin zen berria Amerikan barna Deiar bat samina Frantses haurregana Ikaran zegoela gure erresuma Bainan lagun gaitzala nola umek ama Eta aiza herritik etsai gaixtakina.
- 3 Bertze zombait bezala bainaiz Frantses haurra Eta euskaldun seme Landibartarra Ameriketara utzi dut parada ederra Irabazten bainuen urte eta zilarra Fortuna egin orde jin naiz gerlarat.
- 4 Ongi besarkaturik arreba maitea Nigarrez utzi nuen gaixo haurridea Nik buruan hartua huna gosetea Egia erraiteko espantuz bete Etzala ez izanen gerla bat luzea.
- 5 Kasernan sartu nintzen gero zombait aste Armaren erabiltzen ongi ikasi arte Gero handik aintzina igorri xtante Gerlan ari naizela hamar hilabete Hainbertze irautea nik ez nuen uste.
- 6 Gerla zer den ez daki ikusi ez duenak Hemen nola dabilzan gau egun gizonak Beti lanean ari ezinduak zainak Hazi batzu bezala lurpean erainak Hola tratatzen gaitu etsai alemanak.
- 7 Nitaz kanpo badira bi anaia suan Hek ere han baidaude ainitz irriskuan Hiruak bizi gare bai orainokoan Laguntzaile bat badugu ama bat zeruan Hura otoitzten dugu guk behar orduan.



Arbona Harretzeko  
**Laurent ELHORGaren ahotik**

## Iragan egun batez

- 1 Iragan egun batez ametsetan nintzen Ene maitearekin ari nintzen lore biltzen Nik biltzen nituen eta harek atxikitzen Pentsatzekoa enetzat zer atsegina zen.
- 2 Errebenitu nitzan bai ametsetarik Lili eder guziak galduak eskutik Nere maitea ere urrundu bixtatik Orduan jarri nintzen pena bihotzetik.
- 3 Ametsak amets dira gaur heldu nitzaitzu Zurekin egoitera balin bada aizu Otoi otoi atea ideki daitazu Baldin bazire nitaz urrikalmendutsu.
- 4 Bai urrikari zaitu, zu ene maitea Bai eta pena ere egin hertzean Oraindik ez dezaket ideki atea Ene aita eta ama lokartzekoak dira.
- 5 ...  
...  
...  
...  
Zure boza dudanean entzuten kanpoan Ogetik jaiki eta jartzen naiz leihoan.



**Benane ZAMORAren ahotik**  
Frantxua IRAZOKIri ikasiak